

KOD.: A212

Lanpostuaren izena: **KIROL JARDUEREN KUDEAKETA**
KIROL KOORDINATZAILEA, E.T.

LEHEN ARIKETA.
BIGARREN PROBA

Denbora, gehenez: 100 minutu.
Galderak: 100.

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun ereduak.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

- 1.- Kirolaren Europako Gutuna. 3. artikulua. Kirol mugimendua. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:
- "Kiroltzat" joko da jarduera fisiko mota oro, partaidetza antolatua edo bestelakoaren bidez sasoi fisiko eta psikikoa agertu edo hobetzeko, giza harremanak garatzeko edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzeko xedea dutenak.
 - Botere publikoen egitekoa kirol mugimenduen jardunaren osagarria da funtsean, beraz, ezinbestekoa da gobernu kanpoko kirol erakundeekin lankidetzan estuan aritzea gutun honen helburuak lortzeko eta, hala badagokio, kirola garatu eta koordinatzeko mekanismoak ezartzea.
 - Borondatezko kirol erakundeek erabakitzeko mekanismo autonomoak ezarriko dituzte, legearen barruan. Hala gobernuak nola kirol antolakundeek batak bestearen erabakiak errespetatzeko beharra onartu beharko dute.
 - Kirol erakundeek harreman probetxugarriak izan ditzaten bultzatuko da, elkarren artean eta kide potentzialekin, esate baterako, merkataritza, komunikabideak, etab., horrek kirolaren edo kirolarien esplotazioa ekarri gabe.
- 2.- Kirolaren Europako Gutuna. 4. artikulua. Instalazioak eta jarduerak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:
- Kirol instalazioen jabeek behar diren neurriak hartuko dituzte pertsona behartsuen sarbidea ahalbidetzeko, ezintasun fisiko edo mentalen bat dutenak barne.
 - Kirol jarduerak zuzentzen edo gainbegiratzen diharduen pertsona orok behar diren kalifikazioak izan beharko ditu, haren kargura dituen pertsonen segurtasunari eta osasunaren babesari arreta berezia emanez.
 - Edonork kirol instalazio eta jardueretara sarbide izatea bermatuko da, inolako bereizketarik egin gabe sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, nazio edo gizarte jatorria, nazio gutxiengo batekoa izatea, ekonomia-egoera, jaiotza edo bestelako zirkunstantziak direla kausa.
 - Herritar orori kirolean jarduteko aukera bermatzeko neurriak hartuko dira eta, hala badagokio, neurri osagarriak hartuko dira hala aukerak dituzten gazteek nola pertsona edo talde behartsuenek edo ezinduek aukera horietaz baliatzerik izan dezaten.
- 3.- Kirolaren Europako Gutuna. 6. artikulua. Partaidetzaren sustapena. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA:
- Neurri egokiak hartuko dira gazteen gaitasun fisikoa garatzeko, oinarrizko trebetasun fisikoak eta kirol trebetasunak eskuratzen laguntzeko eta kirolaren praktika sustatzeko.
 - Komenigarria izango da kirol antolatua kudeaketa sustatzea egitura egokien bidez. Kirolari profesionalak babes eta gizarte egoera egokiak izango dituzte, baita edonolako esplotaziotik babestuko dituzten berme moralak ere.
 - Lantokian kirol jardueretan parte hartzeko aukera sustatuko da, kirol politika orekatu baten testuinguruan.
 - Gaitasuna duten erakundeek emandako prestakuntza-ikastaroen antolaketa sustatu beharko da, kirol sustapenaren alderdi guztiak barne hartzen dituzten diplomak edo kualifikazioak lortze aldera.
- 4.- Kirolaren Europako Gutuna. 10. artikulua. Kirola eta garapen jasangarriaren printzipioa. Jendearen ongizate fisiko, mental eta soziala belaunaldi batetik bestera bermatu eta hobetzeak eskatzen du jarduera fisikoak —hiri, landa eta ur inguruneetan egindakoak barne— planetak dituen baliabide mugatuetara egokitzea, eta garapen jasangarriaren printzipioekin eta ingurumenaren antolakuntza orekatuarekin bat etorri garatzea. Horretarako, neurri hauek hartuko beharko dira: Adieraz ezazu erantzun OKERRA:
- Naturaren eta ingurumenaren balioak kontuan hartzea kirol-instalazioak planifikatu eta eraikitzean.
 - Kirol antolakundeek natura eta ingurumena kontserbatzeko egiten dituzten ahaleginak sostengatu eta bultzatzea.
 - Herritarrek kirolaren eta garapen jasangarriaren artean dauden harremanez kontzientzia handiagoa izan dezaten saiatzeko, natura hobetu ezagutzen eta ulertzen ikas dezaten.
 - Europako estatu bakoitzeko jarduera fisiko eta kirol jarduera autoktonoak sustatzea.

5.- Kirolaren Liburu Zuria. Europar Batasuna. Liburu Zuria Batzordearen lehen saioa da kirolarekin lotutako arazoak sakon lantzeko. Helburu orokor hauek ditu: kirolak Europan duen egitekoari buruzko estrategiak zehaztea, berariazko gaiari buruzko eztabaida sustatzea, eta kirolaren kudeaketari leku gehiago ematea Europar Batasunaren erabakietan. Hori dela eta, kirolak Europan bete behar duen papera aztertzen du, eta EBk hartu beharreko neurriak. Kirolaren egiteko sozialari dagokionez hau aipatzen du: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Garapen jasangarria sostengatzea.
- b) Kirolaren bidez herritartasun aktiboa eta boluntarioria sustatzea.
- c) Kirolak hezkuntzan eta prestakuntzan duen egitekoa sustatzea.
- d) Kirolaren finantzaketa publikoa.

6.- Espainiako kirolaren egitura. Kirola sektore publikoan eta pribatuan. Espainian, kirolaren antolakuntza sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sistema batean oinarritzen da. Bi sektoreek ardurak partekatzen dituzte kirol jardueraren eta praktikaren sustatze, promozionatu eta garatze. Interesen harmonizazioa eta erantzukidetasun soziala dira kirol jardueraren dinamikaren dinamika soziala informatzen eta eratzten duten bi printzipioak. Hauek dira sektore publiko eta pribatuko erakunde nagusiak: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Sektore publikoa: toki erakundeak.
- b) Sektore publikoa: Espainiako Olinpiar Batzordea.
- c) Sektore pribatua: kirol federazioak.
- d) Finantzaketa publiko-pribatuko sistema mistoa (ADO programa).

7.- Espainiako kirolaren egitura. ADO programak oinarritzeko helburu hauek ditu: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Espainiako olinpiar taldearen jardun nabarmena lortzea Olinpiar Jokoetan, Mediterraneoko Jokoetan edo oro har beste batzuetan parte hartzen duenean.
- b) Erkidegoetako goi mailako lehia sustatzea.
- c) Espainiako enpresei Espainiako goi mailako lehiaren promozioan parte hartzea erraztea, kirol babesaren bitartez.
- d) Espainiako kirolariek Olinpiar Jokoetan parte har dezaten, administrazio kudeaketarako entitate publiko gisa funtzionatzea, funts bakarrak bideratzeko eta olinpiar federazioen kirol prestakuntzarako planak kontrolatzeko.

8.- Espainiako kirol federazioek dagozkien kirol modalitateen barruko kirol espezialitateak gobernatu, administratu, kudeatu, antolatu eta arautzeko jarduerak propioak betetzen dituzte, eta horretaz gain, administrazio izaera duten funtzio publikoak betetzen dituzte Kirol Kontseilu Gorenaren koordinazioaren eta babesaren pean. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Erkidegoetako federazioekin koordinatuta jokatzeko beren kirol modalitateak estatuko lurralde osoan orokorrean promozionatzeko.
- b) Estatuko administrazioarekin eta autonomia-erkidegoetako administrazioekin lankidetzan aritzea kirol teknikarien prestakuntzan, eta kirolean debekatuta dauden substantzia eta multzo farmakologikoen eta araz kanpoko metodoen prebentzio, kontrol eta errepresioan.
- c) Goi mailako kirolarien prestakuntza planak diseinatu, landu eta gauzatzeko, bakoitza bere kirol modalitatean eta erkidegoetako federazioekiko lankidetzan hala badagokio, baita horien urteko zerrendak osatzen parte hartzea ere.
- d) Europar lurraldean egiten dituen nazioarteko lehiaketa ofizialak antolatu edo zaintzea.

9.- Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutuna. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutunak lau ekintza deskribatzen ditu, zeinak bederatzi printzipio gidaritan oinarritzen baitira.
- b) Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutunak bederatzi ekintza deskribatzen ditu, zeinak lau printzipio gidaritan oinarritzen baitira.
- c) Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutunak lau ekintza deskribatzen ditu, zeinak lau printzipio gidaritan oinarritzen baitira.
- d) Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutunak bederatzi ekintza deskribatzen ditu, zeinak bederatzi printzipio gidaritan oinarritzen baitira.

- 10.- Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutuna. Kirol jardueretako parte-hartzea handitzeko lanean ari diren herrialde eta antolakundeek printzipio gidari hauei jarraitzea gomendatzen da: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)
- Ekintza jasagarriak ezartzea, estatu, eskualde eta toki mailako aliantzak eginez eta askotariko sektoreen bitartez, eragin handiagoa lortze aldera.
 - Bizi-zikloaren araberako hurbilketa egitea, ume, familia, heldu zein adinekoen beharrak kontuan hartuz.
 - Osasungarriak diren aukera pertsonalak eskaintzea, hartara fisikoki aktibo izateko aukera izango baita saihestu beharreko aukera.
 - Kultur sentiberatasuna aintzat hartzea, eta estrategiak "tokiko errealitate", testuinguru eta baliabideen arabera egokitzea.
- 11.- Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutuna. Kirol jardueretako parte-hartzea handitzeko lanean ari diren herrialde eta antolakundeek printzipio gidari hauei jarraitzea gomendatzen da: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)
- Gaitzeko, ikertzeko, jarduteko, politikak gauzatzeko, ebaluatzeko eta zaintzeko trebetasunak sortzea.
 - Ebidentzian oinarritutako estrategiei jarraitzea, publiko objektibotzat populazio orokorra zein berariazko azpitaldeak hartuta.
 - Jarduera fisikoaren ingurumen, gizarte eta banako baldintzatzaileak bazter uztea.
 - Ekitate ikuspegi baten alde egitea, gizarte eta osasun alorreko ezberdintasunak gutxitzeko, baita jarduera fisikorako sarbiderako parekotasun ezak gutxitzeko ere.
- 12.- Kirolaren Euskal Plana, 2003-2007. Eskola-kirolaren ereduaren erronkak: erronka estrategikoak. Euskal Kirol Sistemako partaide guztiek barneratu behar duten erronka da kirol jarduera mota honetan Euskal Eskola Kirolaren eredia EAeko hiru lurralde historikoetan homogeneizatu eta ezartzea, haietako bakoitzaren ezaugarri soziodemografiko eta geografikoak errespetatuz. Helburuak hauek izango dira: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)
- Kirol ohitura sortzea eskola-adineko neska-mutikoengan.
 - Bizimodu osasungarria eta gure ingurumen eta kultur-ondarearekin errespetutsua garatzea ahalbidetzen duten kirol jarduerak sustatzea.
 - Eskola-adineko neska-mutikoen kirol jarduera askotarikoa sustatzea, LHko (Lehen Hezkuntza) adinean, bereziki.
 - Guztiak zuzenak dira.
- 13.- Kirolaren Euskal Plana, 2003-2007. Eskola-kirolaren ereduaren erronkak: erronka estrategikoak. Euskal Kirol Sistemako partaide guztiek barneratu behar duten erronka da kirol jarduera mota honetan Euskal Eskola Kirolaren eredia EAeko hiru lurralde historikoetan homogeneizatu eta ezartzea, haietako bakoitzaren ezaugarri soziodemografiko eta geografikoak errespetatuz. Horretarako beharrezkoa da: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)
- Aitortutako eragile desberdinak nahastea (ikastetxe, klub, KSAk, beste kirol erakunde batzuk, federazioak, erakunde publikoak eta beste batzuk) eskola-ordutegiz kanpoko kirol ibilbide orekatuak ezartzen lagunduko duen zerbitzu eskaintzan.
 - Eskola-ordutegian zein eskola-ordutegiz kanpo burututako Hezkuntza Fisikoko jarduna hobetzea.
 - Ariketa fisikoaren jarraitasuna bermatzea jardun mota hauek jolaserako lehiaketa eremuetan kirol errendimenduari hertsiki lotutako esparruetatik kanpo burutu nahi dituzten ikasleei.
 - Lehiaketa hautakorreko sistemarako sarbidea ahalbidetzea hala nahi duten neska-mutikoei.
- 14.- Kirolaren Euskal Plana, 2003-2007. Partaidetzako kirolaren ereduaren erronkak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.
- Partaidetzako kirolerako gutxieneko titulazio ofizialak nahastea.
 - Hiritarren asmo eta beharren arabera osasun eta segurtasun bermearekiko kirol zerbitzuen eskaintza dibertsifikatuaren garapena erraztea.
 - Bizimodu osasungarria eta gure ingurumen eta kultur-ondarearekin errespetutsua garatzea ahalbidetzen duten kirol jarduerak sustatzea.
 - Partaidetzako kirolaren praktikarako sarbidea erraztu eta sustatzea honelako ohiturekin kontzientzia eskasena duten edo kirol jarduerarako zailtasun handienak dituzten hiritar taldeei.
- 15.- 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, ELKARTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEKOA. 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua. Lege Organiko honen arabera arautuko dira: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)
- Alderdi politikoak.
 - Sindikatuak eta enpresaburuen erakundeak.
 - Kirol-federazioak.
 - Aurreko guztiak okerrak dira.

16.- 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, ELKARTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEKO. 2. artikulua. Edukia eta printzipioak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Pertsona orok askatasunez elkartzeko eskubidea du, xede zilegiak eta zilegi ez direnak lortzeko.
- b) Edozein pertsona fisiko behartu daiteke elkarte bat eratzera, elkarte horretan parte hartzera edo elkarte horretan izatera, baita legearen arabera eraturako elkarte baten kide dela adieraztera ere.
- c) Elkarteen barne-antolaketa eta jardunbidea demokratikoak izan behar dute, aniztasuna zeharo errespetatuta. Zuzenbide osoz deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen edozein alor aintzat hartzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta akordioak.
- d) Erakunde publikoek ezin izango dute elkartzeko eskubidea egikaritu euren artean, edo subjektu pribatuen artean, suspertze- eta laguntza-neurri gisa, baldin eta horien baldintza berberetan jarduten badute, elkartearen jardunbidean nagusitasuna saihesteko asmoarekin.

17.- 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, ELKARTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEKO. Edukia eta printzipioak. 4. artikulua. Administrazioarekiko harremanak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Botere publikoek suspertuko dute, euren kasuan kasuko eskumenen esparruan, interes orokorreko jarduerak gauzatzen dituzten elkarreak eratu eta garatzea.
- b) Administrazioak ezin izango du hartu elkarteen barne-bizitzan eragina duen prebentzio- edo etete-neurririk.
- c) Botere publikoek ez diete inolako laguntza-motarik emango onartze-prozesuan edo jardunbidean bereizkeria egiten duten elkarreei, jaiotzarengatik, arrazarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal edo sozialengatik.
- d) Guztiak zuzenak dira.

18.- 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, ELKARTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEKO. 21. artikulua. Elkartekideen eskubideak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Elkartearen jardueretan eta gobernu- nahiz ordezkaritza-organoetan parte hartzeko eskubidea, boto-eskubidea egikartzeko eskubidea, bai eta Biltzar Orokorreko joateko eskubidea ere, estatutuekin bat etorritik.
- b) Informazioa jasotzeko eskubidea, elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaeraren gainean, kontu-egoeraren gainean eta jarduerak duen bilakaeraren gainean.
- c) Elkarteko organoen erabakiak onartzeko eskubidea, baldin eta erabaki horiek legearen edo estatutuen aurkakotzat jotzen baditu.
- d) Beraren aurka diziplinako neurriak hartu aurretik, berak esan beharrekoa entzunarazteko eskubidea, eta neurri horiek eragiten dituzten egitateen berri izateko eskubidea. Zehapena ezarriz gero, zehapen hori ezarri duen erabakia zioduna izan beharko da.

19.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. 2. artikulua. Printzipio gidariak. Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Hezkuntza-sisteman kirolari eta gorputz-hezkuntzari lekua ematea.
- b) Kirol-jarduera gizarte-maila guztietara, batez ere babestuenetara, zabaltzeko programa bereziak onartzea eta burutzea.
- c) Indarkeria kirol-mundutik erauzteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- d) Kirola aisialdi-aukera eta osasun-ohitura modura sustatzea, helburu hori lortzeko egokiak diren kirol-ekintzak aldeztuz.

20.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. 2. artikulua. Printzipio gidariak. Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Kirol-elkarreak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura publikoak onartzea eta babestea ere.
- b) Lankidetzaren arduragabea izatea kirol arloan herri-administrazioen artean eta herri-administrazioen eta kirol-federazioen eta/edo beste edozein kirol-erakunderen artean.
- c) Ezintasun fisiko, psikiko, sensorial edo mistoak dituzten herritarren artean kirol-ekintzak sustatzea, zeharo gizarteratu daitezen laguntzeko.
- d) Penintsulako kirolari laguntzea Estatuan nahiz atzerrian.

21.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. 4. artikulua. Erakunde komunak. Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagozkien eskumenak hauek izango dira: Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Era bereko irizpideak onartzea herri-administrazioek kirol-ekipamenduen erroldak egin ditzaten.
- b) Kirol-ekipamenduak eraikitzeo, zabaltzeo eta eraberritzeko finantzaketa-planak onartzea eta gauzatzea.
- c) Goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntza tekniko eta ekonomiko ematea.
- d) Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza tekniko eta ekonomiko ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteek beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzea kontrolatuko da.

22.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. 5. artikulua. Lurralde historikoetako foru organoak. Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hauek erabiltzea: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea.
- b) Jarduera jakin bat kirol-motatzat kalifikatzea.
- c) Kirol-ekipamenduen arlokako lurralde-planak onartzea.
- d) Udalaren kirol-zerbitzuak koordinatzea eta laguntzea eta zerbitzu horien kudeaketa bateratua bultzatzea.

23.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. 6. artikulua. Udalak. Udalei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hauek betetzea: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, zabaltzea eta hobetzea, eta orobat kudeatzea eta mantentzea.
- b) Kirol-ekipamenduen hirigintza-plangintza egiteko tresnak onartzea eta gauzatzea.
- c) Udalaren kirol-ekipamenduen erabilera arautzeko ordenantzak onartzea.
- d) Guztiak zuzenak dira.

24.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. 9. artikulua. Kirol-erakunde motak. Kirol-erakunde motak hauek izango dira: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Kirol-klubak.
- b) Kirol-elkartek.
- c) Kirol-sozietate kooperatiboak.
- d) Kirol-federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna.

25.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. VII. KAPITULUA. Kirol Erakundeen Erregistroa. 41. artikulua. Erregistroan jaso beharreko egintzak. Kirol Erakundeen Erregistroan egintza hauek jaso beharko dira: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Kirol-klub, kirol-elkarte eta kirol-federazioen eratzea.
- b) Kirol-erakundeen estatutuen eta araudien onartzea.
- c) Kirol-erakundeen ordezkari eta administrazio organoetarako hautatutako kideen izendatzea eta kargu-uztea.
- d) Kirol-klubak herri-onurakotzat jotzea.

26.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. VII. KAPITULUA. Kirol Erakundeen Erregistroa. 42. artikulua. Onurak eta lankidetzak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Kirol-erakunde bat Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzeak onarpen ofiziala ekarriko dio lege honen ondorioetarako. Erregistroan inskribatuta egotea ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari berariazko kirol-programen dirulaguntzak jaso ahal izateko, kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eta kirol-leggedian jasotako gainontzeko onurez baliatzeko.
- b) Kirol Erakundeen Erregistroak babestu egingo ditu inskribatutako erakundeen izena eta sinboloak, izen eta sinbolo horiek edo antzekorik beste inork erabil ez ditzan.
- c) Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumena daukan sailak eskatzen zaion aholkularitza tekniko eta laguntza emango die kirol-erakundeak sortzeko edozein proiektu martxan jarri nahi dutenei.
- d) Guztiak zuzenak dira.

27.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. IV. TITULUA. Kirol lehiaketak. 44. artikulua. Lehiaketen sailkapena. 1. Lege honen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan izango diren kirol-lehiaketak honela sailkatuko dira: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Lehiaketa ofizialak eta lehiaketa ez ofizialak.
- b) Nazioarteko lehiaketak, Estatuko lehiaketak, Erkidegoko lehiaketak eta eremu txikiagoko lehiaketak.
- c) Profesionalentzako lehiaketak, erdiprofesionalentzako lehiaketak eta amateurrentzako lehiaketak.
- d) Kirol federatutako lehiaketak, eskola-kiroleko lehiaketak eta unibertsitate-kiroleko lehiaketak.

28.- 4/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena. IV. TITULUA. Kirol lehiaketak. 48. artikulua. Lizentzien edukia. Federazio, eskola eta unibertsitate lizentziek aseguru bat izango dute berekin, arrisku hauek estaliko dituen: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Administrazio-erantzukizuna.
- b) Kalte-ordainak, hilez gero.
- c) Osasun-laguntza, osasun-sistema pribatuak bere gain hartzen ez dituen kasuetan eta arloetan, baldin eta kirolariak beste aseguru baten bidez ez baditu estalita arriskuak.
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

29.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 1. artikulua. Kontzeptua. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Dekretu honen ondorioetarako, eskolako kirola da eskola-umeek nahitaezko eskola-aldian eta eskola-orduetan egiten duten kirol jarduera.
- b) Eskolako kirola osatzen duten jarduerak hezigarriak izan behar dute, alegia, eskola-umeen heziketa integralaren barruan kokatuta egongo dira eta heziketa sistemaren eta haren etapen helburuekin bat egingo dute oro har, bereziki gorputz-hezkuntzaren alorreko helburuekin.
- c) Alderdi hezigarri horretatik ondorioztatzen denez, eskolako kirol eskaintza antolatzen parte hartzen duten Kirolaren Euskal Planeko egitura edo eragileek 6 eta 18 urte bitarteko haurrek egin beharreko mugimenduzko jarduerak, jarduera fisikoak eta/edo kirolekoak sustatu behar dituzte.
- d) Guztiak zuzenak dira.

30.- 125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 3. artikulua.- Eskolako kirolaren programak eta lehiaketak. 3. paragrafoa.- Eskolako kirolari buruzko programek gehienez ere hiru kirol ibilbide jasoko dituzte: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Kirolean parte hartu aurreko ibilbidea.
- b) Goi mailako errendimenduari ekiteko ibilbidea.
- c) Kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbidea.
- d) Guztiak zuzenak dira.

31.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 3. artikulua.- Eskolako kirolaren programak eta lehiaketak. 4. paragrafoa.- Kirol ibilbideen barruan, honako jarduera mota hauek eskaini ahal izango dira: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Kirol aurreko ezagutza jarduerak.
- b) Goi mailako lehiaketa jarduerak.
- c) Hautemate jarduerak.
- d) Guztiak zuzenak dira.

32.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 4. artikulua.- Eskolako kirolaren kategoriak. Eskolako kirola honako kategoria hauetan antolatuko da: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Benjaminurrekoak: programa bukatzen den urtean 7 edo 8 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- b) Benjaminak: programa bukatzen den urtean 9 edo 10 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- c) Haurrak: programa bukatzen den urtean 11 edo 12 urte betetzen dituzten eskola-umeak.
- d) Kadeteak: programa bukatzen den urtean 15 edo 16 urte betetzen dituzten eskola-umeak.

33.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 5. artikulua.- Jardueren lurralde-eremua. 1. paragrafoa.- Eskolako kirolaren jarduerak honako lurralde-eremu hauetan egingo dira, kategoriaren arabera: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Benjaminurrekoak eta benjaminak: toki/eskualde eremua.
- b) Kimuak: lurralde historikoa/autonomia erkidegoa.
- c) Haurrak: autonomia erkidegoa.
- d) Kadetea: erkidegoz gaindikoa.

34.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 6. artikulua.- Jardueren ezaugarriak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Jardueri buruzko joko eta lehiaketa araudiak, hezkuntza programak eta gainerako ezaugarriak eskola-umeen bereizgarritasunetara egokituta egongo dira, eta neskato eta mutikoen kokagune eta baldintza propioetara begira prestatuko dira.
- b) 8 urtetik aurrera eta eskola-umeen bilakabide fisiko, psikologiko, intelektual eta sozialen erritmoaren arabera, eskolako kirolaren jarduerak kirolari ekiteko hasierako prozesua bultzatuko dute. Horrekin, haurrak hezkuntza balio positiboak —kirol lehiaketaren balio espezifikokoak barne— bermatzen dituzten inguruneetan garatzeko prozesua osatuko da, kirol modalitate ugariaren berri jasotzea sustatuko da, kirol ohiturak sortzea, bizimodu osasungarri batez hezteak, eta modalitate ezberdinak kirolariak eta kirol ikusleak prestatzea.
- c) Eskolako kirolari buruzko programetan ahalmen-urritasunak dituzten eskola-umeak beren eskola-kideengandik bereiztea sustatuko da. Hori ezinezkoa bada, jarduera berariazkoak aurreikus daitezke ahalmen-urritasunak dituzten taldeentzat.
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

35.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 7. artikulua.- Jarduera motak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Beste jarduera batzuk. Kirol jarduerak, eta jarduera fisiko eta aisialdikoak.
- b) Beste jarduera batzuk. Kirol eta kultur jarduerak, eta aisialdiko jarduerak.
- c) Beste jarduera batzuk. Kirol aurreko jarduerak eta kultur jarduerak, eta aisialdiko jarduerak.
- d) Beste jarduera batzuk. Kirol eta kultur jarduerak, eta jarduera fisiko eta aisialdikoak.

36.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 8. artikulua.- Kirolean parte hartzeko ibilbidea. 1.- Kirolean parte hartzeko ibilbidearen helburua da gazteek kirola eta jarduera fisikoa egitea, kirol modalitate ezberdinak ezagutzea, eta kirol ohiturak eta bizimodu osasungarria bereganatzea. 2.- Kirolean parte hartzeko ibilbidean honako jarduera hauek sartzen dira: Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Hasiera jarduerak, lehiaketa aldatuak edo parte-hartzaileak, aisialdiko jarduerak, eta kirol eta kultur jarduerak.
- b) Hautemate jarduerak, teknifikazio jarduerak, errendimenduari ekiteko lehiaketak, eta kirol eta kultur jarduerak.
- c) Hautemate jarduerak, teknifikazio jarduerak, lehiaketa murriztuak, eta kirol eta kultur jarduerak.
- d) Hasiera jarduerak eta teknifikazio jarduerak.

37.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 8. eta 9. artikulua. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) 8. artikulua.- Kirolean parte hartzeko ibilbidea. Kirolean parte hartzeko ibilbidearen barruan lehiaketa aldatu edo parte-hartzaileetan jarduteko gutxieneko adina benjaminurrekoen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da, kirol modalitate guztietan eta lurralde historiko guztietan. Ibilbide horretako gainerako jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina, ordea, benjaminen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da.
- b) 9. artikulua.- Errendimenduari ekiteko ibilbidea. Errendimenduari ekiteko ibilbidearen barruan hautemate jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina hurren kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da. Ibilbide horretako gainerako jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina, ordea, kimuen kategoriako bigarren urteari dagokiona izango da.
- c) 8. artikulua.- Kirolean parte hartzeko ibilbidea. Kirolean parte hartzeko ibilbidearen barruan lehiaketa aldatu edo parte-hartzaileetan jarduteko gutxieneko adina benjaminurrekoen kategoriako bigarren urteari dagokiona izango da, kirol modalitate guztietan eta lurralde historiko guztietan. Ibilbide horretako gainerako jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina, ordea, benjaminurrekoen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da.
- d) 8. artikulua.- Kirolean parte hartzeko ibilbidea. Kirolean parte hartzeko ibilbidearen barruan lehiaketa aldatu edo parte-hartzaileetan jarduteko gutxieneko adina benjaminen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da, kirol modalitate guztietan eta lurralde historiko guztietan. Ibilbide horretako gainerako jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina, ordea, benjaminurrekoen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da.

38.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 13. artikulua.- Eskolako kirolaren lizentzia. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Eskolako kirolaren lehiaketetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da eskolako kirolaren lizentzia izatea. Lizentzia kirolariaren bizitokiari dagokion foru aldundiko organo eskudunak emango du.
- b) Eskola-umeentzako lizentzia haien lurralde historikoan egoitza duten erakundeei baino ezin zaie eman. Beste lurralde historikoetako erakunderen batekin parte hartzeko, kasuan kasuko foru aldundiaren baimena beharko da.
- c) Beren egoitzari dagokion lurralde historikotik kanpoko beste baten urteko programetan parte hartu nahi duten erakunde edo eskola-umeek beren bizilekuari ez dagokion foru aldundiaren beste baimen bat lortu beharko dute.
- d) Lurralde historikoetan kirolaren eskumena duten foru organoek federazio lizentziak eman ahal izango dizkiete eskola-umeei.

39.- 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa. 15. artikulua.- Egitura eta eragileak. Eginkizunak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Ikastetxeak izango dira kirolean parte hartzeko ibilbidearen barruko jardueretan parte hartzeko lehentasunezko esparrua, eta haiek arduratuko dira prestakuntza, antolakuntza eta administrazio alderdiez.
- b) Herri administrazioek ikastetxeen eta kirol klub eta elkarten arteko elkarlana sustatu beharko dute, jardueren prestakuntza-alderdiari begira.
- c) Udalak izango dira lurralde historikoetako foru organoek onarturiko programak exekutatzeko ardua izango dutenak, foru organo horiekin elkarlanean; beste ekintza batzuen artean, jarduerak egiteko instalazioak lagako dituzte, nagusiki.
- d) Guztiak zuzenak dira.

40.- 16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. 2. artikulua.- Definizioa. (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde pribatuak, administrazio funtzio publikoak baino betetzen ez dituztenak, eta euren lurralde eremuko kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak, edo kirola —modalitate batean edo gehiagotan— egiten edo bultzatzen aritzen diren beste talde batzuk barne hartzen dituztenak
- b) Kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde pribatuak, euren eskudantziez gain, administrazio funtzio publikoak betetzen dituztenak, eta euren lurralde eremuko kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak, edo kirola —modalitate batean edo gehiagotan— egiten edo bultzatzen aritzen diren beste talde batzuk barne hartzen dituztenak
- c) Kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde pribatuak, euren eskudantziez gain, administrazio funtzio publikoak betetzen dituztenak, eta nazioaz gaindiko eremu batean kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak, edo kirola —modalitate batean edo gehiagotan— egiten edo bultzatzen aritzen diren beste talde batzuk barne hartzen dituztenak.
- d) Kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde publikoak, euren eskudantziez gain, administrazio funtzio publikoak betetzen dituztenak, eta euren lurralde eremuko kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak, edo kirola —modalitate batean edo gehiagotan— egiten edo bultzatzen aritzen diren beste talde batzuk barne hartzen dituztenak

41.- 16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. 11. artikulua.- Lurraldeko federaziorik edo Euskadiko federaziorik ez egotea. Lurralde historiko batean ez badago kirol modalitate baterako lurraldeko federaziorik, zeinek hartuko ditu bere gain lurraldeko federazioei dagozkien funtzio guztiak, eta bete? Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Dagokion Euskadiko federazioak.
- b) Euskadiko federaziorik egon ezean, Foru Aldundiak kirol erakunde bat gaitu ahal izango du, bi urteko gehieneko epe baterako.
- c) Euskadiko federaziorik egon ezean, Foru Aldundiak kirol erakunde bat gaitu ahal izango du, urtebeteko gehieneko epe baterako.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

42.- 16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. II. TITULUA. KIROL FEDERAZIOEN FUNTZIOAK. 12. artikulua.- Lurraldeko federazioen funtzioak. Lurraldeko federazioek honako funtzio hauek dituzte: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Kirol jarduera federatua antolatzea euren lurralde eremuan.
- b) Euskadiko administrazioei laguntzea kirola sustatzeko helburuetan, eta, bereziki, legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetzako eta aholkularitzako funtzio jakinetan.
- c) Dagozkien kirol modalitatean eta lurralde eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den heinean, bermatzea.
- d) Lehiaketa eta jarduera ofizialak antolatzea euren lurralde historikoan, baina bakarrik euren kirol modalitatearen barruan onarpen handia edo garrantzi historikoa duten diziplinei dagozkienak.

43.- 16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. II. TITULUA. KIROL FEDERAZIOEN FUNTZIOAK. 14. artikulua.- Administrazio funtzio publikoak. 2. paragrafoa.- Dagokion administrazioaren irizpidearen, babesaren eta kontrolaren pean, kirol federazio horiek honako administrazio funtzio publiko hauek betetzen dituzte, eskuordetzan: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Administrazio publikoari laguntzea haren kirol programetan, eta haietan parte hartzea, bereziki honako hauetan: goi mailako kirolarientzako programetan; eskola kiroleko programetan; emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko programetan; eta administrazio publikoak antolatzen dituen eta interes orokorrekoak diren programetan.
- b) Euskadiko kirolak Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan izango duen ordezkaritza arautzea.
- c) Eskola eta federazio lizentziak ematea eta izapidetzea.
- d) Kirolean duten diziplina ahalmena baliatzea.

44.- 16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. IV. TITULUA. LEHIAKETA FEDERATUAK ETA SELEKZIOAK. 37. artikulua.- Lehiaketa egutegiak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Kirol federazioek euren lehiaketa ofizialen egutegi berezia izan beharko dute.
- b) Kirol federazioek euren lurralde eremuan egingo den edozein lehiaketa, ofiziala izan zein ez, sartu ahal izango dute euren egutegi orokorretan.
- c) Euskadiko federazioek eta lurraldeko federazioek euren funtzioak koordinatu beharko dituzte, kirol lehiaketen piramide egitura egokia bermatzearen.
- d) Guztiak zuzenak dira.

45.- 16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. III. KAPITULUA. Estatutuak eta arautegiak. 64. artikulua.- Kirol federazioen estatutuen gutxieneko edukia. Euskadiko eta lurraldeko federazioen estatutuek honako hauek arautu behar dituzte, gutxienez: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Beren gain hartzen dituzten administrazio-funtzio publikoak.
- b) Kirol modalitatea eta ofizialki onartuta dauden diziplinak.
- c) Gobernu, administrazio eta ordezkaritza organoak: osaketa, funtzioak, hautaketa sistemak eta funtzionamendua.
- d) Agiri-erregimena.

46.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. 2. artikulua.- Kirol-klubaren eta kirol-elkartearen definizioa. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Honakoak dira kirol-klubak, ezaugarriak: irabazte asmorik gabeak, pertsona fisiko edo juridikoek osatuak, kirol modalitate bat edo batzuk praktikatu eta sustatzea helburu dutenak, kirol-lehiaketetan parte hartzeko xedez.
- b) Honakoak dira kirol-klubak, ezaugarriak: irabazte asmorik gabeak, pertsona fisikoek osatuak, kirol modalitate bat edo batzuk praktikatu eta sustatzea helburu dutenak, kirol-lehiaketetan parte hartuaz edo parte hartu gabe.
- c) Honakoak dira kirol-klubak, ezaugarriak: irabazte asmorik gabeak, pertsona fisiko edo juridikoek osatuak, kirol modalitate bat edo batzuk praktikatu eta sustatzea helburu dutenak, kirol-lehiaketetan parte hartuaz edo parte hartu gabe.
- d) Honakoak dira kirol-klubak, ezaugarriak: irabazte asmoa dutenak, pertsona fisiko edo juridikoek osatuak, kirol modalitate bat edo batzuk praktikatu eta sustatzea helburu dutenak, kirol-lehiaketetan parte hartuaz edo parte hartu gabe.

47.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. II. KAPITULUA. KIROL KLUBAK ERATZEA ETA ESTATUTUAK ALDATZEA. 5. artikulua.- Gaitasuna. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Pertsona fisiko publikoek edo juridiko pribatuek era ditzakete kirol-klubak.
- b) Pertsona fisikoek honakoak bete beharko dituzte: obratzeko gaitasuna izatea, eta eskubideaz baliatzeko ezelako beharkizun legalik ez izatea.
- c) Pertsona juridikoek beharrezko izango dute euren eskudun organoaren erabaki berariazkoa.
- d) Atzerriko pertsona fisiko eta juridikoek era ditzakete elkarteak eta euretako kide izan daitezke, betiere kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeriarekin bat etorriaz.

48.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. 10. artikulua.- Egoitza soziala. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Kirol-kluben egoitza soziazat onartuko ahal izango dira posta-kutxak, orrialde elektronikoak eta erabilera publikodun lokal eta instalazioak, baldin eta horien titularitatea beste pertsona edo erakunde bati badagokio. Ez da beharrezkoa izango alde aurretiko baimena, baldin eta kirol-klubak badauka errentamendu-eskubiderik edo lagapen-titulurik edo antzekorik.
- b) Kirol-kluben egoitza soziazat ez da sekula onartuko posta-kutxarik, ez eta orrialde elektronikorik ere. Erabilera publikodun lokal eta instalazioetan ezarri ahal izango da egoitza soziala, horien titularitatea beste pertsona edo erakunde bati badagokio eta ez badago jasota badela alde aurretiko baimenik. Ez da beharrezkoa izango alde aurretiko baimena, baldin eta kirol-klubak badauka errentamendu-eskubiderik edo lagapen-titulurik edo antzekorik.
- c) Kirol-kluben egoitza soziazat ez da sekula onartuko posta-kutxarik, ez eta orrialde elektronikorik ere; horretaz gain, ezin izango da egoitza sozialik ezarri erabilera publikodun lokal eta instalazioetan, baldin eta horien titularitatea beste pertsona edo erakunde bati badagokio eta ez badago jasota badela alde aurretiko baimenik. Beharrezkoa izango da alde aurretiko baimena, baldin eta kirol-klubak badauka errentamendu-eskubiderik edo lagapen-titulurik edo antzekorik.
- d) Kirol-kluben egoitza soziazat ez da sekula onartuko posta-kutxarik, ez eta orrialde elektronikorik ere; horretaz gain, ezin izango da egoitza sozialik ezarri erabilera publikodun lokal eta instalazioetan, baldin eta horien titularitatea beste pertsona edo erakunde bati badagokio eta ez badago jasota badela alde aurretiko baimenik. Ez da beharrezkoa izango alde aurretiko baimena, baldin eta kirol-klubak badauka errentamendu-eskubiderik edo lagapen-titulurik edo antzekorik.

49.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. III. KAPITULUA. KLUBETAKO BAZKIDEAK. 14. artikulua.- Bazkideen eskubideak. Bazkideek aitorturik izango dituzte estatutuetan, gutxienez, honako eskubide hauek: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Ordezkaritza- eta gobernu-organoei dagokienez, hautatzekoa eta hautatua izatekoa, betiere obratzeko gaitasuna izanik adingabekoa izanez gero. Edozelan ere, adingabekoek izanen dute honako eskubidea: ordezkaritza-organoei egiten dituzten bileretan, entzunak izatekoa.
- b) Kirol-klubaren helburu espezifikoak lortzen parte hartzekoa, indarrean dagoen legerian eta estatutuetakoa xedapenetan ezarritakoari jarraiki; eta helburuok bete daitezten eskatzekoa.
- c) Kirol-klubaren organoek hartutako erabakiak, zehazki, legearen eta estatuen aurkakotzat dituztenak, aurkatzekoa.
- d) Kirol-klubetik libreki bereiztekoa.

50.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. III. KAPITULUA. KLUBETAKO BAZKIDEAK. 15. artikulua.- Bazkideen betebeharrak. Kirol-klubetako bazkideek honako betebeharrak izango dituzte: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Kirol-klubaren helburuak konpartitzea, eta horiek lortzen kolaboratzea.
- b) Kuotak, derramak eta beste ekarpen batzuk pagatzea, hain justu ere Urteko Batzarrean hartutako erabakiekin bat bazkide bakoitzari doazkionak.
- c) Kirol-klubaren organoek balioz hartutako erabakiak aurkaratzea.
- d) Estatutu- eta erregelamendu-xedapenetatik ondorioztatzen diren gainontzeko obligazioak ez konplitzea.

51.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. IV. KAPITULUA. KIROL-KLUBEN ERREGIMEN ORGANIKOA. 18. artikulua.- Kirol-kluben organoak. Kirol-klub orotan izango dira organo hauek, gutxienez: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Gobernu-organo bat, Batzar Nagusia deritzana.
- b) Administrazio-organo bat, pertsona bakarrekota eta ordezkari-organorekin bat egiten duena, edo kolegiatua izan daitekeena; kasu horretan Zuzendaritza Batzordea deituko da.
- c) Ordezkari-organoa bat, zeinaren titularra klubeko lehendakaria izango baita; berak egingo du Zuzendaritza Batzordeko buruarena (halako batzorderik izatekotan).
- d) Guztiak zuzenak dira.

52.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. 49. artikulua.- Dokumentazio-erregimena. Kirol-klubek gutxienez liburu hauek eduki beharko dituzte ordenan eta eguneratuta: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Bazkideen erregistro-liburua.
- b) Kide anitzeko organoen akta-liburuak.
- c) Klubaren ondarea, emaitzak eta finantza-egoera fideltasunez irudikatuko dituzten kontabilitate-liburuak, eta klubaren ondasunen inbentarioa.
- d) Guztiak zuzenak dira.

53.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. VIII. KAPITULUA. EKONOMIA ETA ONDARE ERREGIMENA. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) 53. artikulua.- Erantzukizun ekonomikoak. 1. paragrafoa.- Kirol-klubek beren betebeharren erantzukizun ekonomikoa izango dute, eta unean uneko eta etorkizuneko ondasun guztiekin erantzun beharko dute.
- b) 53. artikulua.- Erantzukizun ekonomikoak. 2. paragrafoa.- Kirol-klubetako bazkideek erantzukizun pertsonala izango dute klub horiek hartutako zorretan.
- c) 54. artikulua.- Irabaziak jasotzeko debekua. 1. paragrafoa.- Kirol-klubetako diru-sarrera guztiak, kirol-adierazpenetatik lortutako etekinak barne, klubaren xede soziala garatzeko erabiliko dira oso-osorik.
- d) 54. artikulua.- Irabaziak jasotzeko debekua. 2. paragrafoa.- Etekinak ezingo dira inola ere bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edo haiekin bizi direnen artean edo haiekin antzeko afektibitate-harremana dutenen edo senideen artean ere, eta ezingo zaizkie irabazi asmodun pertsona fisiko edo juridikoei doan laga ere.

54.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. IX. KAPITULUA. KLUBAK HERRI ONURAKO DEKLARATZEA. 56. artikulua.- Klubak herri-onurako deklaratzeko baldintzak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Euskadiko interes orokorren alde egitea.
- b) Bazkideen sarrera-kuota 1.000 euro baino gehiagokoa ez izatea.
- c) Klubaren bazkide kantitatea mugatuta ez egotea, kirol-instalazioen gaitasun fisiko edo edukierak hala eskatzen duenean izan ezik.
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

55.- 163/2010 DEKRETUA, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa. XII. KAPITULUA. KIROL ELKARTEAK. 72. artikulua.- Kirol-elkarteen eraketa eta inskripzioa. 2. paragrafoa.- Kirol-elkarteko arauak hauxe jaso beharko dute: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Izendapena.
- b) Egoitza.
- c) Bultzatu beharreko kirol-modalitateak. Ezinduentzako kirola bultzatzen badute, hori ere adierazi egin beharko dute, erregistroan jasota egon dadin.
- d) Guztiak zuzenak dira.

56.- Erabilera kolektiboko igerilekuen eta ur-jarduerako beste instalazio batzuen araudiaren eranskina. 5. artikulua.- Urtegi motak. Urtegiak, erabileraren eta horietaz baliatuko diren bezeroen arabera, honela definitu daitezke: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Jolaserako urtegiak, eta helburu anitzekoak.
- b) Egokitzapen funtzionalerako urtegiak.
- c) Jauzietarako urtegiak.
- d) Urtegi terapeutikoak, termalak, lasaikuntzakoak eta errehabilitaziorakoak.

57.- Erabilera kolektiboko igerilekuen eta ur-jarduerako beste instalazio batzuen araudiaren eranskina. 11. artikulua.- Edukiera. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Urtegi bakoitzeko edukiera bere azaleraren arabera izango da, hots, jenderik gehien dagoenean ere bainu-hartzaile bakoitzak gutxienez 1 m²-ko ur-xafla izan dezala zerupeko urtegietan, eta 2 m²-koa estalpeko urtegietan. 5. artikuluko d) idatz-zatian zehaztutako urtegiak eta plisti-plastarakoak salbuetsi egiten dira.
- b) Igerilekua duen instalazio batek har dezakeen edukierarik gehiena, instalazioko urtegi guztietako ur-xaflen azalera baturak osatuko du. 3 m²-ko ur-xafla bakoitzeko ezingo dira 3 bezero baino gehiago egon zerupeko urtegietan; eta bezero bat, m² bakoitzeko, estalpekoetan.
- c) Solariumetarako aldeak dituzten igerilekuetan arduradun sanitarioek adierazitako gehienezkoaz besteko edukierarako baimena eman dezake, baldin eta euren titularrek edukiera hori justifikatu eta bezeroen segurtasuna bermatzen badute.
- d) Guztiak zuzenak dira.

58.- Erabilera kolektiboko igerilekuen eta ur-jarduerako beste instalazio batzuen araudiaren eranskina. 14. artikulua.- Estalpeko igerilekuen baldintzak. 3. paragrafoa.- Uraren tenperatura... (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) 24 eta 28 gradu zentigraduren artekoa izango da eta ingurumen-tenperaturak ± 4 °C-ko oszilazioa izango du aurrekoarekiko. Igerilekuak tenperatura desberdina duten urtegiak baditu, azalerarik handiena duen ur-xaflaren urtegiarena izango da erreferentziatzat hartuko den tenperatura.
- b) 26 eta 28 gradu zentigraduren artekoa izango da eta ingurumen-tenperaturak ± 2 °C-ko oszilazioa izango du aurrekoarekiko. Igerilekuak tenperatura desberdina duten urtegiak baditu, azalerarik handiena duen ur-xaflaren urtegiarena izango da erreferentziatzat hartuko den tenperatura.
- c) 28 gradu zentigradukoa izango da eta ingurumen-tenperaturak ± 4 °C-ko oszilazioa izango du aurrekoarekiko. Igerilekuak tenperatura desberdina duten urtegiak baditu, azalerarik handiena duen ur-xaflaren urtegiarena izango da erreferentziatzat hartuko den tenperatura.
- d) 24 eta 28 gradu zentigraduren artekoa izango da eta ingurumen-tenperaturak ± 2 °C-ko oszilazioa izango du aurrekoarekiko. Igerilekuak tenperatura desberdina duten urtegiak baditu, azalerarik handiena duen ur-xaflaren urtegiarena izango da erreferentziatzat hartuko den tenperatura.

59.- Erabilera kolektiboko igerilekuen eta ur-jarduerako beste instalazio batzuen araudiaren eranskina. 12. artikulua.- Segurtasun elementuak. Segurtasun-elementu edo -neurri nahiko izango dituzte igerilekuek, instalazioko jolas-erakarpenean kopuru eta motari egokituko zaizkionak. Gutxienez segurtasun-elementu hauek eduki beharko dituzte: 1.- Erreskaterako elementuak, sorosleei laguntzeko balioko dutenak: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Salbamendu flotagailu edota xafla zurrin bi edo gehiago 350 m²-tik beherako ur-xaflako urtegi bakoitzeko.
- b) Uhalez eta beste euskarri batzuez hornitutako taulak, zutabe zurruneak—, zaurituak erabat ibilgetzeko balioko dutenak.
- c) Zaurituak garraiatzeko ohatilak.
- d) Guztiak zuzenak dira.

60.- Erabilera kolektiboko igerilekuen eta ur-jarduerako beste instalazio batzuen araudiaren eranskina. 33. artikulua.- Soroslea. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Erabilera kolektiboko igerilekuek sorosle bat edukiko dute, uretako salbamenduari eta lehen sorospenak emateari buruzko prestakuntza duena. Prestakuntza arduradun sanitarioek egiaztatutako erakunde, instituzio edo enpresek, publiko zein pribatuek, emango dute.
- b) Soroslea bainurako aldetik kanpo egon ahalko da, igerilekua funtzionamenduan den ordutegian non dagoen jakinez gero. Erabilgarri dauden segurtasun-elementuak non dauden eta nola erabiltzen diren jakin beharko du, eta duen lanpostuari dagozkion egitekoak burutuko ditu soil-soilik.
- c) Igerilekuko erabiltzaileek erraz identifikatzeko modukoa izan beharko du sorosleak.
- d) Sorosleak lehen sorospentarako lokala erabiltzeko eta mantentzeko ardura izango du.

61.- Erabilera kolektiboko igerilekuen eta ur-jarduerako beste instalazio batzuen araudiaren eranskina. IV. ERANSKINA. LEHEN SOROSPENETARAKO LOKALA ETA BOTIKA-KUTXA. Lehen sorospeneko lokalak — 28. artikuluan aipatzen da— elementu hauek izango ditu, gutxienez: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Ur-instalazioa eta konketa, ohatila baskulagarria eta larrialdietarako botika-kutxa; azken hori armairu zuri bat izango da, gurutze gorri bat eta sarraila dituena.
- b) Edateko uraren instalazioa eta konketa, ohatila baskulagarria eta larrialdietarako botika-kutxa; azken hori armairu zuri bat izango da, gurutze gorri bat eta sarraila dituena.
- c) Edateko uraren instalazioa eta konketa, ohatila baskulagarria, gurpil-aulkia eta larrialdietarako botika-kutxa; azken hori armairu zuri bat izango da, gurutze gorri bat eta sarraila dituena.
- d) Edateko uraren instalazioa eta konketa, ohatila baskulagarria, kortesiazko bionboa eta larrialdietarako botika-kutxa; azken hori armairu zuri bat izango da, gurutze gorri bat eta sarraila dituena.

62.- GIZARTE ETXEEN FUNTZIONAMENDUKO ESPARRU-AGIRIA. Helburuak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Udalaren gizarte politikan diharduten sailek informazio, prestakuntza, kultur, gizarte, kirol eta aisialdi arloetan garatzen dituzten zerbitzuak, programak eta jarduerak antolakuntza unitate bakarrean sakabanatzea, horiek sustatu eta herritarren behar zein eskaerei egokitzearen.
- b) Udal zerbitzuak zentralizatzea, herritarrek gertuago izan ditzaten; hartara komunitatearen beharrak, asmoak eta aukerak hobeto ezagutzeko eta gehiago kontuan hartzea lortuko da, eta horiei azkarrago erantzun ahalko zaie.
- c) Zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea ezin hobea izan dadin lortzea, erabiltzaileen asmoekin bat etor dadin; erabiltzaileen gogobetetasuna bilatuko da, dauden baliabide guztiak arrazionalizatuz eta koordinatuz.
- d) Elkarrekin, banakoek eta gizataldeek parte hartzeko prozesuak behatzea, haien eskaerak eta ekimenak ezagutu eta bideratzeko, banakoek eta taldeek hiriko gizarte, kultura eta kirol prozesuen barruan egon daitezen.

63.- GIZARTE ETXEEN FUNTZIONAMENDUKO ESPARRU-AGIRIA. Funtzionamendu organigrama. Gizarte etxeen organigraman, zeharkako ikusmoldearen arabera, eta bultzatu nahi den antolakuntza-kultura berri horren baitan, hiru osagai bateratu behar dira. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Teknikoa, elkarrekin eta herritarrena.
- b) Politikoa, teknikoa eta herritarrena.
- c) Politikoa, teknikoa eta elkarrekin.
- d) Teknikoa, politikoa eta herritarrena.

64.- GIZARTE ETXEEN FUNTZIONAMENDUKO ESPARRU-AGIRIA. Lan atalak: definizioak eta eginkizunak. Zonetako taldeak. Osaera. Zona bakoitzean diziplina anitzeko talde bat egongo da, honako taldekideek osatua: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Lehendakaritza Saileko zonako koordinatzailea.
- b) Kirol Saileko kirol teknikaria.
- c) Kultura Saileko kultur teknikaria.
- d) Gizartegintza Saileko teknikaria.

65.- GIZARTE ETXEEN FUNTZIONAMENDUKO ESPARRU-AGIRIA. Zonetako taldeak. Zereginak: (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Gizarte etxeen guneak banatzeko irizpideak finkatzea, zerbitzu eta programak handitzeko edo sortzeko beharrei erantzun ahal izateko.
- b) Zonako errealitatearen diagnosi-azterketa egitea. Hortik aurrera, guztien helburuak modu adostuan ezarriko dituzte, beharrezko programak, jarduerak, ekintzak, neurriak, proiektuak, tresnak eta azterketak garatuko dituzte, aurkitutako beharrei, eskariei edo arazoei aurre egiteko.
- c) Zonako zentroak sustatzea, auzoentzat gizarte, kultur eta kiroleko erreferentziak izan daitezen. Horretarako taldeek eskaintzen dutena aurkeztu beharko dute, erabiltzaileak erakarri eta fidelizatzen.
- d) Zonako zentroen eta gizarte-eragileen arteko komunikaziorako eta informaziorako bide izatea. Horrez gain, elkarrekin eta erabiltzaileekin harremanak eta ekintzak sustatuko ditu, eta parte har dezaten prozedurak bultzatuko ditu, elkar hobeto ezagutzeko eta zonan inplikazio handiagoa lortzeko.

66.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 2. artikulua.- Aplikazio-eremua. Araudia leku hauetan aplikatuko da: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Udalak jabetzan dituen eta kudeatzen dituen gizarte etxe eta kirol instalazioetan, eta beste baten jabetzakoak izanik Udalak kudeatzen dituen instalazioetan orobat.
- b) Udalaren jabetzako gizarte etxe eta kirol instalazioetan, kudeaketa beste baten esku utzi bada ere.
- c) Udal jabetzako gizarte etxe eta kirol instalazioetan, horien kudeaketa beste baten esku utzi bada ere, eta beste batek jabetzan dituen eta kudeatzen dituen instalazioetan orobat.
- d) Udal jabetzako gizarte etxe eta kirol instalazioetan aplikatuko da, horien kudeaketa beste baten esku utzi bada ere, eta beste baten jabetzakoak izanik Udalak kudeatzen dituen instalazioetan orobat.

67.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 4. artikulua.- Erabiltzaileen eskubide orokorrak. Gizarte etxeen eta kirol instalazioen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Zerbitzu bat jasotzeko ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu badute, zerbitzu hori jasotzeko eskubidea dute, jarduera programan zehaztutako baldintzetan edo instalazioak erabiltzeko berariazko baldintzetan. Arrazoi justifikatuak direla medio kontratatutako jarduera edo zerbitzua bertan behera utzi beharko balitz, ordaindutakoa itzuliko luke Udalak.
- b) Gizarte etxe edo kirol instalazioko langileekin hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute, Vitoria-Gasteizko Udalean Euskara Erabiltzeari buruzko Ordenantzaren ildotik.
- c) Erabilera orokorreko guneak ezarritako ordutegietan erabiltzeko eskubidea, ezinbestean edo arrazoi justifikatuengatik erabiltzerik ez dagoenean salbu.
- d) Guztiak zuzenak dira.

68.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 7. artikulua.- Erabiltzaileen betekizun orokorrak. Gizarte etxeen eta kirol instalazioen erabiltzaileek betekizun hauek izango dituzte: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Zentroetako langileei okerreko funtzionamenduak, hausturak, gabeziak eta araudi honetan xedatutakoaren kontrako gertakariak jakinaraztea.
- b) Edozein txartelaren bidez norberaren burua identifikatzea instalazioen ardura duten langileek eskatutakoan, baita eskatzen zaion guztietan dena delako instalazioa erabiltzeko erreserba-txartela erakustea ere.
- c) Instalazio, zerbitzu eta ekipamenduak egokiro erabiltzea eta zuzen zaintzea, beharren arabera.
- d) Udaleko Sailek eskudun den organoaren bidez nahiz zentroetako langileen bitartez ematen dituen arau eta aginduak eztabaidatzea.

69.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 11. artikulua.- Adingabeak sartzea. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Segurtasun neurriak direla eta, adingabeak pertsona heldu batekin sartu beharko dira gizarte etxe eta kirol instalazioetan, haren ardurapean, salbu eta ikastaro edo lantegietan parte hartzea sartzen badira edo ikastetxe, klub edo talde antolatu batekin batera, baldin eta haiek jardueraz arduratzen den langileren bat badute.
- b) Segurtasun neurriak direla eta, 8 urtetik beherako haurrak 18 urtetik gorako pertsona batekin sartu beharko dira gizarte etxe eta kirol instalazioetan, haren ardurapean, salbu eta ikastaro edo lantegietan parte hartzea sartzen badira edo ikastetxe, klub edo talde antolatu batekin batera, baldin eta haiek jardueraz arduratzen den langileren bat badute.
- c) Segurtasun neurriak direla eta, 6 urtetik beherako haurrak 16 urtetik gorako pertsona batekin sartu beharko dira gizarte etxe eta kirol instalazioetan, haren ardurapean, salbu eta ikastaro edo lantegietan parte hartzea sartzen badira edo ikastetxe, klub edo talde antolatu batekin batera, baldin eta haiek jardueraz arduratzen den langileren bat badute.
- d) Segurtasun neurriak direla eta, 8 urtetik beherako haurrak 16 urtetik gorako pertsona batekin sartu beharko dira gizarte etxe eta kirol instalazioetan, haren ardurapean, salbu eta ikastaro edo lantegietan parte hartzea sartzen badira edo ikastetxe, klub edo talde antolatu batekin batera, baldin eta haiek jardueraz arduratzen den langileren bat badute.

70.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 20. artikulua.- Argazki kamerak, bideoak edo irudiak zein soinuak hartzeko beste edozein tresna erabiltzea. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Guztiz debekatuta dago esparru komun, aldagela, bainu, sauna eta antzeko aretoetan irudiak hartzea.
- b) Espazio komunetan irudi pribatuak hartu ahalko dira, baldin eta irudietan ageri diren pertsonak ez dutela horrelakorik nahi adierazten ez badute.
- c) Irudiak edo soinuak zentroko esparru komunetan hartzen badira eta helburua informazioa bada, araudi honetako 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.
- d) Gizarte etxe eta kirol instalazioetan zaintzarako jarritako bideo kamerak udaltzainek ikuskatuko dituzte eta indarreko legeriak ezarritakoari jarraituz instalatuko dira.

71.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. Bosgarren titulua. Espazioak erreserbatu eta alokatzea. 30. artikulua.- Espazioak erreserbatu eta alokatzeko eskaerak egiteko baldintzak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Zentroak berak jarduera bertan behera uzten badu, edo instalazioen egoerak behar bezala erabiltzea galarazten duenean, alokairuaren dirua itzuliko du Udalak.
- b) Eguraldiak eragiten dien instalazioetan, erabiltzaileek lehenengo 5 minutuetan eskatzen badute baino ez da dirua itzuliko edo erreserba aldatuko.
- c) Araudi honetako atarikoan adierazitako espirituarekin bat datorren jardueraren bat gauzatu nahi duen pertsona edo talde orok egin dezake espazio bat erreserbatu eta alokatzeko eskaera.
- d) Erreserbatutako espazioa erabiltzen den bitartean hura eskatu duen talde, elkarte, klub edo erakundearen arduradun batek egon beharko du bertan.

72.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 31. artikulua.- Eska daitezkeen egunak. Aukera hori ematen duten espazioak erreserbatu eta alokatzeko eskaera gizarte etxe eta kirol instalazioetako edozein bulegotan egin daiteke, edo horretarako eskaintzen diren bestelako bitartekoak baliatuz. Aukera hauek daude: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Denboraldiko erreserbak. Urtean zehar garatzen diren jarduerak antolatzeko bide ematen duten espazioetarako.
- b) Zuzeneko erreserbak. Zuzenean erabil daitezkeen espazioetarako, baldin eta kasu bakoitzean ezartzen diren arauak onartzen badira, esku hartze berezirik (espazioa aldatzea, materiala osatzea, langileak...) behar ez badute edo merkataritza xedeetarako (enpresa garapena, sarrera kobratzea, marketina...) erabiltzen ez bada.
- c) Denboraldiko erreserbak. Horrelako erreserbak gehienez 8 egun lehenago egin ahalko dira.
- d) Zuzeneko erreserbak. Gizarte etxe eta kirol instalazioetako kontrol bulegoetan egiten da zuzenean, ezarritako prezio publikoak edo tasak ordainduz. Horrelako erreserbak gehienez 10 egun lehenago egin ahalko dira.

73.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 36. artikulua.- Hutsegite larriak. Honako hauek joko dira arau-hauste larritzat: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Gizarte etxearen edo kirol instalazioaren ohiko funtzionamendua eragozteak edo horretarako trabak jartzea.
- b) Zerbitzuetara finkatuta dagoen prezio publikoa edo tasa ordaindu gabe sartzea.
- c) Zerbitzuetarako txartel bereziak manipulatu eta faltsutzea.
- d) Norberak eragindako kalteen berri ez ematea.

74.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 37. artikulua.- Hutsegite arinak. Honako hauek joko dira arau-hauste arintzat: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Jarduera edo zerbitzuen arduradunen aginduei jaramonik ez egitea.
- b) Gizarte etxe eta kirol instalazioetako zerbitzu eta espazioetan elkarbizitza nahastea.
- c) Gizarte etxe eta kirol instalazioetako zerbitzu eta espazioak egoki ez erabiltzea eta baimendutako jardueren bestelakoak egitea.
- d) Gizarte etxeak eta kirol instalazioak zein bertan emandako zerbitzuren bat erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei erabiltzea eragozteak.

75.- VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO GIZARTE ETXEEN ETA KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA. 40. artikulua.- Zigorren mailaketa. Ezarri beharreko zigorra mailakatzeko alderdi hauek izango dira kontuan: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)

- a) Arau-haustea behin baino gehiagotan egin den.
- b) Arau-hausleak nahita egin duen.
- c) Kalteen larritasuna eta nolakotasuna.
- d) Guztiak zuzenak dira.

76.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Udalaren kirol instalazio eta gizarte etxeetako abonatuak. Definizioa. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Gasteizko udalerrian bizi eta alta eskabidea egin duelarik Herritarren Udal Txartelaren (HUT) jabe den nornahi izango da abonatu, baldin eta urteko kuota ordaindu badu.
- b) Gasteizko udalerrian bizi ala ez, alta eskabidea egin duelarik Herritarren Udal Txartelaren (HUT) jabe den edozein pertsona edo pertsona juridiko izango da abonatu, baldin eta urteko kuota ordaindu badu.
- c) Gasteizko udalerrian bizi ala ez, alta eskabidea egin duelarik Herritarren Udal Txartelaren (HUT) jabe den nornahi izango da abonatu, baldin eta urteko kuota ordaindu badu.
- d) Gasteizko udalerrian bizi ala ez, alta eskabidea egin duelarik Herritarren Udal Txartelaren (HUT) jabe den edozein pertsona edo pertsona juridiko —helbide soziala Gasteizko udalerrian duena— izango da abonatu, baldin eta urteko kuota ordaindu badu.

77.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Aldi baterako paseak. Garaiz eta behar bezala eskatzen duen edonork erosi ahal izango du aldi baterako pasea, Gasteizko udalerrian bizi ala ez. Herritarren Udal Txartela (HUT) da aldi baterako pasea egiaztatzeko euskarria, pertsonala eta besterenezina. Aldi baterako bi pase mota daude, horien iraunaldiaren arabera. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Astebeteko aldi baterako pasea eta 15 eguneko aldi baterako pasea.
- b) Hilabeteko aldi baterako pasea eta 15 eguneko aldi baterako pasea.
- c) Hilabeteko aldi baterako pasea eta astebeteko aldi baterako pasea.
- d) Bi hilabeteko aldi baterako pasea eta hilabeteko aldi baterako pasea.

78.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK. Kirol instalazioa dohainik uztea. Erakundearen lehenetsuneko lankidetzak eskatzen duten erabilera motak: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Unibertsitateko kirol-lehiaketa eta -sustapenerako instalazioak.
- b) Ezintasunen bat dutenen elkarteek ikuspegi sozialetik edo osasunarenetik —edo erakundeek helburu berarekin— antolatzen dituzten jarduera fisiko eta olgetarakoak gauzatzeko instalazioak.
- c) Arabako lurralde federazioen gain utzitako zeregin publikoak bideratzeko instalazioak.
- d) Herritar orori zuzendutako kirol ikuskizunak —dohainekoak eta kirol erakundeek taxuz antolatuak— gauzatzeko instalazioak.

79.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK. Kirol instalazioa erabiltzeagatik prezio publiko ordaintzea. Oinarrizko zerrenda gisa finkatzen diren erabilera motak: Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Kirol erakundeek beren bazkideentzat egiten duten kirol eskaintza nahiz herritar orori eskaintako kirol ikuskizunak gauzatzeko instalazioak, antolakuntza taxuz egingo dela bermatua dagoelarik.
- b) Ezinduentzako kirol erakundeek kirol eskaintzarako eta entrenamenduetarako instalazioak.
- c) Guraso elkarteek eta kirol erakundeek eskola-kirola bideratzeko instalazioak.
- d) Nahitaezko irakaskuntzako ikastetxe publiko nahi pribatuek Hezkuntza Fisikoko eskolak emateko instalazioak.

80.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Abonatu ez direnek instalaziora sartzeko osagarria ordaindu behar duten instalazioak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Tenis pista estaliak.
- b) Mahai-teniseko mahaia.
- c) Izotz pista.
- d) Pilotalekuak.

81.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Abonatu ez direnek instalaziora sartzeko osagarririk ordaindu behar ez duten instalazioak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Badminton pistak.
- b) Futbol eta errugbi zelaiak.
- c) Squash pistak.
- d) Estali gabeko padel pistak.

- 82.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Sarrerak. Eskalada-murruak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- 15 eguneko abonamendua.
 - Hiru hileko abonamendua.
 - 5 urtetik 17ra artekoentzako sarrera.
 - 25 urtetik goraentzako sarrera.
- 83.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Alokairu-prezioen murrizketak, denboraldiko entrenamenduak direnean. Federazioek antolatutako lehiaketetan edo aisialdikoetan parte hartzen dutela egiaztatzen duten erakundeek, edo erakundea sortzeko helburuekin bat datorren kirol programa garatzen dutela egiaztatzen duten kirol erakundeek ehuneko 50eko deskontua izango dute eskatzen dituzten denboraldiko erreserbetan, baldin eta etenik gabe eusten badiote erreserbari. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.
- Kiroldegiko pistak.
 - Gimnasioak.
 - Askotarako aretoak.
 - Pilotalekuak.
- 84.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Instalazioak ekitaldi berezietarako erabiltzea. 1.500 lagunetik gorako edukiera duten instalazioak, ordu edo ordu-zatiko: 55,50 euro. Araudi hau betetzen duten eta dagozkien erabiltze-tasak ordaintzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, kirol elkarteek eta bestelako erakunde onetsiek izango dute instalazioez baliatzeko eskubidea eguneroko kirol jardueraz aparte ekintzetarako. (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)
- Alderdi politikoen edo sindikatuen mitinak eta biltzarrak.
 - Jende asko biltzen duten erlijio ekitaldiak.
 - Irabazi-asmoa duten bestelako erakundeak.
 - Enpresek eskaintako kirol jarduerak, herritar orori zuzenduak eta doakoak, merkataritza-jarduerarik gabeak.
- 85.- Gasteizko Udala. 8.4 udal ordenantza. UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA. Instalazioak ekitaldi berezietarako erabiltzea. 1.500 lagunetik gorako edukiera duten instalazioak, ordu edo ordu-zatiko: 199,80 euro. Araudi hau betetzen duten eta dagozkien erabiltze-tasak ordaintzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, kirol elkarteek eta bestelako erakunde onetsiek izango dute instalazioez baliatzeko eskubidea eguneroko kirol jardueraz aparte ekintzetarako. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- Irabazi-asmorik gabeko kirol erakundeak, kirol saio irekia antolatzen dutenak, beren egituraren oinarritutako antolakuntza-ekarpenik gabe edo jarritako helburua ez lortzeko arriskuarekin.
 - Talde politikoen bilkura, sindikatuen biltzar edo bilerak edo barneko erlijio ekitaldiak.
 - Elkartearen xedearekin zerikusirik ez duten kirol saioak edo kirolaz bestelako jarduerak sustatzen dituzten kirol erakundeak. Ustiapena pribatua da ondorio guztietarako, eta ezin du abantailarik izan kirol erakunde izateagatik, beste sektore batzuekiko lehia desleiala izango bailitzateke.
 - Aurreko guztiak okerrak dira.
- 86.- Gasteizko Udala. Kirol ekipamenduak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- Bost instalaziok dituzte padel pistak (estaliak eta estali gabeak).
 - Hamabi instalaziok dituzte igerilekuak (estaliak eta estali gabeak).
 - Hiru instalaziok dituzte squash pistak.
 - Bi instalaziok dute halterofilia-gela.
- 87.- Gasteizko Udala. Kirol ekipamenduak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.
- Instalazio batek du hondartza boleibola.
 - Instalazio batek du esgrima aretoa.
 - Hiru instalaziok dituzte tenis pistak (estaliak eta estali gabeak).
 - Bederatzi instalaziok dituzte pilotalekuak (estaliak eta estali gabeak).
- 88.- Gasteizko Udala. Kirol ekipamenduak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- Bi instalaziok dute tiro-gela.
 - Bi instalaziok dituzte tenis pistak (estaliak eta estali gabeak).
 - Hiru instalaziok dituzte bolatokiak (estaliak eta estali gabeak).
 - Bi instalaziok dute gimnasia-fosoa.

89.- Gasteizko Udala. Kirol ekipamenduak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Instalazio batek du mahai-teniserako aretoa.
- b) Bi instalaziok dituzte kanpoko igerilekuak.
- c) Hiru instalaziok dituzte bolatokiak (estaliak eta estali gabeak).
- d) Instalazio batek du Kirol Klub zerbitzua.

90.- Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzua. Egitekoa. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, herritar guztiek, neurrian eta ohikotasunez, jarduera fisikoa praktika dezaten lortzea, hain zuzen, ongizate fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetuko duena, osasun ohiturak sortzea eta bizitza kalitatearen hobekuntza ekarriko dituen, baita kirolaren berezkoak diren balioetan hezte eta, bizitzaren iturri den aldetik, ingurune naturalarekiko begirunean ere.
- b) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, herritar ororentzako kirol praktika erregularra lortzea, hain zuzen, ongizate fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetuko duena, osasun ohiturak sortzea eta bizitza kalitatearen hobekuntza ekarriko dituen, baita kirolaren berezkoak diren balioetan hezte eta, bizitzaren iturri den aldetik, ingurune naturalarekiko begirunean ere.
- c) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, herritar guztiek, neurrian eta ohikotasunez, jarduera fisikoa praktika dezaten lortzea, hain zuzen, ongizate fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetuko duena, osasun ohiturak sortzea eta bizitza kalitatearen hobekuntza ekarriko dituen, baita kirolaren berezkoak diren balioetan hezte eta ingurumenarekiko begirunean ere.
- d) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, herritar guztiek, neurrian eta ohikotasunez, jarduera fisikoa praktika dezaten lortzea, hain zuzen, ongizate fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetuko duena, osasun ohiturak sortzea, bizitza kalitatearen hobekuntza eta, bizitzaren iturri den aldetik, ingurune naturalarekiko begirunean ekarriko dituen.

91.- Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzua. Helburu orokorrak Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Jarduera eskaintza zabala sortzea, herritar guztiek zer aukeratu izan dezaten. Jardueran dauden joerak ez ezik, gutxi batzuek zein talde espezifikoek egiten dituzten jardueren babesa eta garapena ere aintzat hartuko dira (aukeratzeko askatasuna aldeztu duen programa plurala).
- b) Aisialdi baliagarriaren kultura sortu eta sustatzea; horretarako hainbat sail edo jardute eremutako helburuak elkartzeko diren jardueren bidez osasun ohiturak sortuko dira.
- c) Gizarte elkarteek nahiz boluntarioek eskuzabaltasunez antolatzen dituzten kirol zein aisialdi ekintzak sustatu eta haiek laguntzea. Jarduera horiek ahalbidetzeko espazioak kudeatzeko hitzarmenak eta kontratuak egingo dira, eta antolakuntza eta logistika laguntza emango da, elkarte mugimendu solidario, kooperante eta independentea indartzeko asmoz, bere jarduerak gidatu eta sendotzeko gauza izan dadin.
- d) Ekintza koordinatuen bidez gizarte osasuntsu batetik aldentzen diren jarrerak eragozte.

92.- Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzua. Kirol dirulaguntzen deialdi publikoa. A multzoko programa.- Jolas kirola, ariketa eta jolas jarduerak, urteko programak, kirol ekitaldi herrikoiak eta kirol eta prestakuntza campusak. Hiru jarduera edo programa mota definitzen dira. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Kirola sustatu eta zabaltzeko programa edo jarduerak, praktika, hitzaldi, solasaldi eta abarren bidez.
- b) Kirola erregulartasunez egitea sustatzen duten jarduerak, federatutako pertsona guztiei zuzenduak.
- c) Kirola noizean behin egitea sustatzen duten jarduerak, federatutako pertsona guztiei zuzenduak.
- d) Emakume helduek kirola egitea sustatzeko programak.

93.- Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzua. Kirol dirulaguntzen deialdi publikoa. Deialdiaren ildotik diruz laguntzekoak diren programa eta jarduerak arlo hauetakoren baten barruan garatu beharko dira: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) E multzoko programa.- Kirol-taldeek estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.
- b) C multzoko programa.- Kirol ekitaldi handi eta irekiak.
- c) B multzoko programa.- Andre Maria Zuria, Olarizu eta Gasteizko Hiria txapelketak, oroitzapenezko probak eta tradizionalak.
- d) D multzoko programa.- Euskal Herriko kirol autoktonoen programa.

- 94.- Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzua. Kirol dirulaguntzen deialdi publikoa. Ez da diru-laguntzarik emango ezaugarri hauetakoren bat duten kirol-proiektu edo -ekitaldietarako: (adieraz ezazu erantzun ZUZENA)
- San Prudentzio, Arabako edo Euskadiko txapelketa izeneko kirol programa edo ekitaldiak, laguntzeko berriazko deialdia dutelako edo beste administrazioen zuzeneko eskumena direlako.
 - Gasteizko udalerriko espazio eta instalazioetan burutu ahal izanda ere hortik kanpo burutzen diren jarduerak.
 - Kirol-klub eta -elkartek lehiaketa federatu erregularretan parte hartzea edo halakoak antolatzea, deialdi honetako E multzoaren baitan (Instalazioak edo ekipamenduak eraiki edo hobetzea) sartzen direnak izan ezik.
 - Guztiak zuzenak dira.
- 95.- Kirol paralinpiarra. Espainiako Paralinpiar Batzordea desgaitasuna duten pertsonen kirola estatu espainiarreko esparruan batu eta koordinatzeko organo gisa eratu zen, Kirol Kontseilu Gorenarekiko lankidetzan estuan. Hauek osatzen dute Paralinpiar Batzordea Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- Paralinpiar Jokoen programa ofizialean sartutako modalitateak dituzten hamalau kirol federazio espainiar, eta paralinpiarrak ez diren bi federazio, desgaitasuna duten pertsonen goi mailako jardura dutelako.
 - Paralinpiar Jokoen programa ofizialean sartutako modalitateak dituzten hamar kirol federazio espainiar, eta paralinpiarrak ez diren lau federazio, desgaitasuna duten pertsonen goi mailako jardura dutelako.
 - Paralinpiar Jokoen programa ofizialean sartutako modalitateak dituzten lau kirol federazio espainiar, eta paralinpiarrak ez diren hamar federazio, desgaitasuna duten pertsonen goi mailako jardura dutelako.
 - Paralinpiar Jokoen programa ofizialean sartutako modalitateak dituzten hamalau kirol federazio espainiar, eta paralinpiarrak ez diren lau federazio, desgaitasuna duten pertsonen goi mailako jardura dutelako.
- 96.- Denentzako kirola eta aisialdiko kirola. Aisialdiko kirolaren ezaugarriak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.
- Parte-hartzaileen alde aurreko jarrera.
 - Araudi aldaezina egotea.
 - Erabilgarri dauden espazioak sor daitezkeen askotariko praktiketara egokitzea.
 - Praktika bera erabilgarri dauden materialetara moldatzea.
- 97.- Kirola egiteak biztanle-sektore ezberdinei dakartzkien onurak. OMEren gomendioak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- 5 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeentzat: egunean gutxienez 30 minutuz jardura fisiko moderatu edo gogorra praktikatzeko.
 - 18 eta 64 urte bitarteko helduentzat: astean bitan edo gehiagotan giharrak indartzeko ariketak egitea komeni da, gihar multzo handiak lantzearen.
 - 65 urteko edo hortik gorako helduentzat: mugitzeko arazoak dituzten pertsonen jardura fisikoa praktikatu behar dute astean 5 egunetan gutxienez, oreka hobetzeko eta erorketak saihesteko.
 - 65 urteko edo hortik gorako helduentzat: astean behin giharrak indartzeko ariketak egitea komeni da, gihar multzo handiak lantzearen.
- 98.- Kirola egiteak biztanle-sektore ezberdinei dakartzkien onurak. OMEren gomendioak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA.
- 18 eta 64 urte bitarteko helduentzat: jardura fisiko moderatua praktikatzeko gutxienez astean 150 minutuz, edo jardura fisiko gogorra gutxienez astean 75 minutuz, edo jardura moderatu eta gogorraren arteko nahasketa baliokidea.
 - 5 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeentzat, giharrak eta hezurak indartzeko jarduerak sartu beharko dira, astean bost aldiz gutxienez.
 - 18 eta 64 urte bitarteko helduentzat: osasunerako onura handiagoak lortzeko, helduek astean 300 minutuz egin behar dute ariketa fisiko moderatua, edo horren baliokidea.
 - 65 urteko edo hortik gorako helduentzat: jardura fisiko moderatua praktikatzeko gutxienez astean 150 minutuz, edo jardura fisiko gogorra gutxienez astean 75 minutuz, edo jardura moderatu eta gogorraren arteko nahasketa baliokidea.
- 99.- Aisialdiaren dimentsioak. Aisialdi autotelikoaren bost dimentsioak. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- Jai-girokoa, ludikoa, ingurumenarekin lotua, ekologikoa eta sortzailea.
 - Sortzailea, ludikoa, jai-girokoa, parte-hartzailea eta solidarioa.
 - Solidarioa, ludikoa, jai-girokoa, ekologikoa eta sortzailea.
 - Ludikoa, ingurumenarekin eta ekologiarekin lotua, sortzailea, jai-girokoa eta solidarioa.

100.- Aisialdiaren dimentsioak. Dimentsio ludikoa. Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Aisialdiaren kultur esperientziei egiten dio aipamen, tradizionalki musika, antzerkia, literatura, eskulangintza, pintura, folklorea eta abar lantzearekin lotutakoei.
- b) Aisialdi jardueren eraginen aurrean herritarrek duten sentiberatasuna adierazten du, eta ingurumen harmonia errespetatzen duen garapen jasagarria planifikatzen laguntzen du.
- c) Komunitate batek dibertsioa eta jolasa —hala umeena nola helduena— bizitzeko bere gain hartzeko duen moduari egiten dio aipamen.
- d) Errealitate komunitarioari eguneroko bizimoduaz, antolaketa arrazionalaz eta errutinaz gaindiko ikuspegi batetik begiratzea ahalbidetzen du.